

ALICIA KOPLOWITZ FUNDAZIOA: 2016ko IKERKETA PROIEKTUETARAKO DIRU LAGUNTZEN DEIALDIA

Lehentasunezko ikerketa arloak:

- Psikiatria, Psikologia eta/edo Haurren eta Nerabearen Neurozientziak

Proiektuen iraupena:

Proiektuen iraupena urtebete naturalekoa izango da, diru laguntza eman denetik aurrera.

Finantzaketa:

Fundazioak 7 laguntza emango ditu. Gehieneko dotazioa: 50.000 euro.

Ikertzaile nagusiak bete beharreko baldintzak:

- a. Espainiar nazionalitatea izatea
- b. UPV/EHUrekin funtzionario, estatutu edo kontratu lotura izatea eskaera aurkeztu duen une beretik eta proiektua gauzatu bitartean.
- c. Ezin da izan ez MIR ez PIR
- d. Eskaera bakarrarekin parte hartu ahalko du deialdi honetan

Ikertaldeko kideek bete beharreko baldintzak:

- a. UPV/EHUrekin funtzionario, estatutu edo kontratu lotura izatea eskaera aurkeztean.
- b. Eskaera bakarrarekin parte hartu ahalko du deialdi honetan.

OHAR GARRANTZITSUA: Ikertaldeko kideek, laguntza gauzatu bitartean, UPV/EHUrekin duten lotura amaitzen bada, ezin izango dute gasturik egotzi aipatutako egoeran dauden bitartean. Ikertzaile nagusiak eman beharko dio Ikerketaren arloko errektoreordeari proiektua gauzatu bitartean gertatzen diren bajen berri.

Aurkeztu beharreko dokumentuak:

- a. Eskaera, Fundazioaren webguneko ereduaren arabera, **UPV/EHUko Ikerketaren arloko errektoreordeak sinatuta**. Eskaerari beste agiri hauek ere erantsi behar zaizkio:
 - a. Ikertzaile nagusiaren eta proposatutako taldeko hiru kideren CVa
 - b. Zientzi memoria
 - c. Lankidetzeta hitzarmena, proiektuak halakorik beharko balu
 - d. Ekonomi memoria
 - e. UPV/EHUko Etika Batzordearen txostena, proiektuak halakorik beharko balu
 - f. Parte hartzaileen baimen informatua

Aurrekontua prestatzeko jarraibideak:

Behekoak joko dira gastu hautagarritzat:

- a. Langile gehiagoren kontratazioa
- b. Material inbentariagarria (Ezinbestekoa da proformako faktura eranstea)
- c. Material suntsikorra

- d. Emaizak argitaratu eta zabaltzeko gastuak
- e. Biltzar eta jardunaldietan izena emateko gastuak
- f. Proposatutako ikertaldeko kideen bidaiak eta dietak
- g. UPV/EHUko Ikerketako Zerbitzu Nagusien gastuak (SGIKER)

UPV/EHUren bidez aurkeztutako eskaerek zehar kostuen % 5a jaso beharko dute aurrekontuan.

OHAR GARRANTZITSUA: 2008ko apirilaren 29ko Erabakian –horren bidez agintzen da UPV/EHUko Estatutuen 315. artikularen garapen arautegia argitaratzeko-jasotakoa aplikatuz, irakasle-ikertzaileek **ezin izango dute nominan ordainsaririk jaso deialdi honen bitartez.** Deialdiko oinarriek debekatzen dute, berariaz, halako ordainsaririk jasotzea.

Eskaerak aurkezteko epea:
2016ko martxoaren 16ra arte

Eskaerak UPV/EHUa aurkezteko prozedura:

EPEMUGA	ARDURADUNA	IZAPIDEA
2016ko otsailaren 24a	Ikertzaile nagusia	Bidali "I. eranskina" proposatutako ikertaldearen berrikuspenerako: convocatorias.dgi@ehu.eus ,
2016ko otsailaren 29a	Ikerketaren arloko Errektoreordetza	Taldearen berrikuspeneraren emaitza jakinarazi.
2016ko martxoaren 7a <i>Data horretatik aurrera ez da bermatuko ordezkari legalaren abala behar duen dokumentazioa epe barruan bueltatuko denik.</i>	Ikertzaile nagusia	Bidali eskaera beteta berrikusteko, baita aurrekontua ere. <u>Fase honetan ez da zientzi memoria bidali behar.</u>
2016ko martxoaren 11a	Ikerketaren arloko Errektoreordetza	Bidali errektoreordeak sinatutako eskaera.
2016ko martxoaren 16a	Ikertzaile nagusia	Bidali eskaera osoa artxibatzeko: convocatorias.dgi@ehu.eus

OHAR GARRANTZITSUA: Ikertzaile nagusiak aurkeztu beharko du Alicia Koplowitz Fundazioan eskaera, dagokion moduan eta epean.

Hona bidali beharko da eskaera osoa koadernatuta:

Fundación Alicia Koplowitz
Att.: Srta. Mónica García
Paseo de Eduardo Dato, 18, bajo
28010 Madrid

Eta dokumentua PDFn bidali beharko da helbide elektroniko honetara: mgarcia@fundacionaliciakoplowitz.or

UPV/EHUren datuak eskaera orria betetzeko:

Hauek dira erakundearen (UPV/EHU) datuak eskaera betetzeko:

- Ordezkarari legala: Fernando Plazaola Muguruza
- Kargua: Ikerketaren arloko errektoreordea
- IFK: Q-48/18001-B
- Helbide soziala: Sarriena auzoa z/g
- Posta kodea: 48940
- Herria: Leioa
- Harremanetarako helbide elektronikoa: convocatorias.dgi@ehu.eus

UPV/EHUrekiko harremana:

- Telefonoa: 94 601 80 08
- Faxe: 94 601 35 50
- E-maila: igz.deialdiak@ehu.eus

Alicia Koplowitz Fundazioarekiko harremana:

- Telefonoa.: 91 702 7992
- E-maila: mgarcia@fundacionaliciakoplowitz.org

Informazio gehiago:

<http://www.fundacionaliciakoplowitz.org/becasyformularios>